



Birusaren agerraldia adinekoen egoitzan

Andoingo San Juan Bataiatzailean 22 kasu positibo antzeman dira azken egunetan, PCR bidez egindako proba ezberdinetan. / 3

AIURRI

Birusaren eragina lan munduan

Beterri-Buruntza eskualdean agerikoa da pandemiak utzitako ondorioa. Langabeziak gora egin du eta ERTE egoeran ia 8.000 lagun izan dira. / 6-7



Harrera familiak erakartzeko kanpaina abiarazi dute, "Ikusgaitzak" lemapean / 11



Federatu mailako Gipuzkoako ligak bertan behera geratu dira, osasun egoerak hobera egin arte / 12



Gabirondok eta Zalduak ez dute adostasunik lortu, eta gaurkoz apusturik ez da jokatu / 13

Egiten duguna gara
Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

ERRIGORA

JOE

SASKI BELTZA
betikoa

ONURAK: PELLO MARICOLA, PELLO MARICOLA, ZINZURU ZURAK, TELAK, TONKOTI PROTEA, HERRIA AL JETAKO TAI, OLBA-OLBA BIKANA ETXEA, KADOKA, SAKETU ZURAK, BOTILAKOAK, KOTON, BIKANA ETXEA

+ Korrikaren katilua

55€

SASKI BERDEA
ekologikoa

ONURAK: ASKO-ETXEA, OLBA-OLBA BIKANA ETXEA, BIKANA BIKANA, TONKOTI PROTEA, PELLO MARICOLA, KADOKA, ZINZURU ZURAK, BOTILAKOAK, KOTON, BIKANA ETXEA

+ Seaskaren egutegia

65€

SASKI ZURIA
berezia

ONURAK: PELLO MARICOLA, ZINZURU ZURAK, BOTILAKOAK, TONKOTI PROTEA, BIKANA BIKANA, PELLO MARICOLA, KADOKA, ZINZURU ZURAK, BOTILAKOAK, KOTON, BIKANA ETXEA

+ Dereduaren haririk

75€

URRIAK 24 - AZAROAK 12

errigora.eus

PCR bidezko kasu positiboen igoera urriko bigarren hamabostaldian

URRIA	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17	18	19	20	21	22	23	24	25	26	27	28	29	30	31	
ANDOAIN	3	1	2	1	3	2	2	1	0	8	3	1	11	11	6	11	10	5	1	5	10	8	5	10	6	3	11	18	9	8	21	196
URNIETA	1	3	4	5	1	1	1	2	4	1	1	1	1	4	8	5	13	13	14	12	15	18	21	16	11	3	13	15	14	13	10	244



Urrian PCR probak egin ziren Urnietan. AIURRI

Urnietako egoera hobetuz doa, pixkanaka-pixkanaka

Egoera zaila izanagatik ere, intzidentzia tasa eta birsorkuntza tasa jaisten ari da

Erredakzioa URNIETA

Azken egunetako datuei erreparatuta, badira itxaropenerako datuak. Azken bi asteetako intzidentzia-tasa metatua jaisten ari da, pixkanaka bada ere. Eta nabarmen jaisten ari dena birsorkuntza-tasa da ere. Azken hori 1 zenbakira gerturatzen edo 1etik jaisten bada, birusa kontrolpean dagoen seinale da. Birusa kontrolatzen ari diren seinaleak dira.

Urriak 30, ostirala:

Positiboak: 14.

Intzidentzia-tasa: 2794,83.

RO birsorkuntza-tasa: 1,73.

Azaroak 2, astelehena:

Positiboak: 10.

Intzidentzia-tasa: 2988,69.

RO birsorkuntza-tasa: 1,30.

Azaroak 3, asteartea:

Positiboak: 5.

Intzidentzia-tasa: 2843,30.

RO birsorkuntza-tasa: 1,22.

Azaroak 4, astezkera:

Positiboak: 8.

Intzidentzia-tasa: 2778,68.

RO birsorkuntza-tasa: 1,10.




Osakidetza kanpaina berria. IREKIA

Prebentzioan sakontzeko deialdia

Erakunde guztietatik indar berezia egiten ari dira herritarrek segurtasun oharrak bete ditzaten

- Erabili musukoa uneoro.
- Eskuak maiz garbitu.
- 1,5 metroko distantziak errespetatu.
- Saihestu pilaketak.
- Berrogeialdiak zorrotz egin.
- Sintomarik izanez gero, deitu osasun-zentrora:
- Urnieta 943 00 66 80.
- Andoain 943 00 66 70.



IREKIA, AZAROAK 4

Oinarritzko birsorkuntza tasa

Birus ezberdinetan zientzia mailan erabiltzen den aldagaia oinarritzko birsorkuntza tasa da. 1 zenbakitik gertu edo beheago egonez gero, birusaren zabalkundea kontrolpean dagoela adierazten da. 1etik geroz eta gora egon, orduan eta kontrol gutxiago dago birusarekiko.

Eskualdea gorriz

Astigarraga izan zen gorriz agertzen lehena. Ondoren, Urnieta. Biak ari dira hobetzen. Intzidentzia aurreko bi asteburuetan:

Andoain: 669,12 / 782,87.

Astigarraga: 1100,32 / 938,51.

Hernani: 944,39 / 1219,21.

Lasarte-Oria: 531,21 / 722,44.

Urnieta: 2294,02 / 2988,69.

Usurbil: 553,97 / 759,73.



IREKIA



Koronabirusari lotutako orainkaria Aiurri.eus gunean.

- **Osasun Sailak zabaldutako datuak eguerdiro, eskualdera ekarrita.**
- **Osasun Alarma egoerari eta pandemiari lotutako albisteak.**
- **Atal bereziak: BIDEO-PILULAK | DATUAK EGUNEZ EGUN**

w w w . a i u r r i . e u s

GOIAN BEGO



Ramon Ansa Zinkunegi



Andoainen hil zen 92 urte zituela, 2020ko urriaren 30ean

Andoaingo Udaleko zinegotzia 1979-1983



ANDOAINGO UDALA

Birusa indartsu sartu da San Juan Bataiatzailean

Orain arte birusetik salbu egon bada ere, asteburuan hasi zen agerraldia edo 'brotea' handituz doa. 22 ziren konfirmatutako kasuak, asteazken goizean. 19 egoiliar eta 3 langile daude kutsatuta. Foru Aldundiko Kabia erakundeak kudeatzen du adinekoen egoitza



Ama Kandida etorbidean dago Andoaingo adinekoen egoitzan. Aldundiko Kabia egiten du kudeaketa. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo San Juan Bataiatzailea adinekoen egoitzan larunbatean izan zen kasu positibo sorta agerraldi edo brote batean bilakatu da. 10 ziren larunbatean, astelehenean 11 eta asteazkenean 22. Zehazki, 19 egoiliar eta 3 langile bakartuta zeuden PCR probatan positibo emanda. Asintomatikoak direla adierazi zio-

ten Aiurri astekariari. Albistea eman zenetik arreta handia piztu da herrian, eta ez dira gutxi sare sozialetan animozko mezuak idazten ari direnak.

Aiurriri adierazitakoaren arabera, Andoaingo egoitzan kutsatu ziren egoiliarak ondo daude, eta egoera kontrolpean dagoela dirudi. Bisitaldiak eten egin dituzte eta egoiliarren eta

senideen arteko komunikazioari eusteko teledeiak egiten ari dira.

Gipuzkoan adinekoen arretarako 65 egoitza-zentro eta 5.425 plaza daude, eta astearen hasieran erabiltzaileen artean 114 COVID-19 kasu positibo zeuden. Igoera handia eman zen ostiralek igandera, 78 kasutik 114ra igo baitzen kopurua.

Pandemia izendatu zutenetik, udan bigarren olatua iritsi zela diote adituek. Abuztuaren 11n lehen positiboa atzeman zenetik, Gipuzkoan 104 adinekok gainditu dute gaixotasuna eta 46 pertsona hil dira. Beti ere, Aldundiak emandako datuetan oinarritutako informazioa da.

Aurreko astean 4.300 PCR probatik gora egin zituen DYAK, adinekoen egoitzetako egoiliarren eta langileen artean. Uztaiaz geroztik, denera 36.508 proba egin dira.

Ez dagoena oso garbi da zenbat lagun hil diren Euskadi osoan, datu ezberdinak erabiltzen baitira. Datuak eta grafikoak egunero eskaintzen dituen Eldiario.es agerkari digitalaren arabera, Euskadin abuztutik hona 150 lagun hil dira. Eta pandemia hasi zenetik, denera, 769 adineko hil omen dira.

Bisitaldi telematikoa

Positibo kasuak eman aurretik bisitaldiak baimenduta zeuden, ez ordea irteerak. Baina asteburuaz geroztik irteerak eta bisitaldiak bertan behera geratu dira. Bisitaldiak telematikoa egiten ari dira, bideo-deien bidez, egoiliarren eta senideen artean.

Eragin zuzena Andoaingo egoera epidemiologikoan Azaroak 2, astelehena.

Positiboak: 2.

Intzidentzia-tasa: 782,87.

Birsorkuntza-tasa: 1,17.

Azaroak 3, asteartea:

Positiboak: 4.

Intzidentzia-tasa: 802,94.

Birsorkuntza-tasa: 1,18.

Azaroak 4, asteazkena:

Positiboak: 19.

Intzidentzia-tasa: 896,62.

Birsorkuntza-tasa: 1,31.

Egoitzaren kudeaketa, Kabiaren esku

2017ko urriaren 26an Andoaingo Udalak egin zuen osoko batzaraldian, San Joan Bataiatzailea adineko egoitza Kabia sarean sartzeko egitasmoa onetsi zuen. Andoaingo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena sinatzea adostu zuten, aho batez. Horrela, 2018ko urtarrilaz geroztik, Foru Aldundiak kudeatzen du egoitza Kabia organismo autonomoaren eskutik. Hitzarmenaren arabera, Udalak Foru Aldundiari doan laga zizkion egoitza eta bere baitan dauden departamentuak; horretarako, baina, hainbat baldintza ezarri ziren etorkizunean bete zitezen. Besteak beste: bertako langileek lan baldintzatan ez deatela okerrera egin, egoitzak jardura berbera eskaintzen jarraitzea, eta egungo lan poltsa errespetatzea.

Andoaingo egoitzan, egun, 90 egoiliar bizi dira, eta 87 langilek egiten dute lan bertan.

Apartamentu tutelatuak

San Juan Bataiatzailea Egoitzara itsatsita dauden apartamentu tutelatuak, berriz, zazpi egoiliar bizi dira; langile batek egiten du lan bertan. Horren kudeaketa Udalaren Gizarte Zerbitzuak darama.

Guria
PENTSIO JATETXEA

Idiazabal, 48
URNIETA
943 00 56 50

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Hamar gomendio euskal gizarteari

LABIren Aholku Batzorde Teknikoaren ustez, “oso beharrezkoa da gizarteari zuzendutako mezuak azpimarratzen eta indartzen jarraitzea, konpromiso zibikoaren maila handitzeko, gomendio ofizialen bidez, eta horiek betetzeko beharra azpimarratuz”



Sagardui Osasun Sailburua, Urkullu Lehendakaria eta Fernandez LABiko koordinatzailea, aurreko astean. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

"Gomendioak neurri arauemai-leen osagarri bezala hartu behar dira, eta neurri horiek bezain garrantzitsuak bezala", erantsi zuen LABik azaroaren 2an gizarteratu zuen mezuan. Jasotako txostena aztertu ondoren, Eusko Jaurlaritzak bere egin ditu LABIren Batzorde Teknikoaren hausnarketak, eta gizarte osoari helarazten dizkio. Eusko Jaurlaritzak bilakaera epidemiologikoaren etengabeko jarraipena egiten ari da. Hona hemen gomendioen edukia:

Gizarteari zuzendutako hamar gomendio

Ohartarazpen zuzena egiten diote euskal gizarteari, bizi dugun egoera larriaz jabetzeko: "Egoera larria da. Urriaren 26ko 36/2020 Dekretuak arauz ezarritako mugaz harago, gizarteari hamar gomendio helarazi nahi zaizkio gizarteari, eta gomendio horiek betetzea bereziki sentikorra da prebentzio-neurriak indartzeko eta kutsatzeko arrisku handiena duten testuinguruak murrizteko".

Jarrera indibiduala

BAT Eskuen garbitasuna, maskara, distantzia soziala eta bizikidetzaren egonkorreko taldekanpoko gizarte-topaketak mugatzea. Ezinbestekoa ez den eta atzeratu daitekeen edozein familia- edo gizarte-jardueratan behera uztea edo atzeratzea. Ahal den neurrian, barne-eremuetako gizarte-topaketak bizikidetzaren talde egonkorreko mugatzea eta gizarte-elkarreraginek jarraipena ondo aireztatu-tako espazio irekietan egitea funtsezko prebentzio-neurriak dira, eta pertsona bakoitzaren menpe daude, eta une honetan areagotu egin behar dira. Banakako erantzukizunaren ildo beretik, herritarrei gomendatzen zaie erakundeek aktibatu dituzten APPak erabiltzea kasuen, kutsatzen eta miaketaren jarraipena errazteko.

BI Banakako konpromiso-neurrien artean, garrantzi berezia dute autoisolamenduak eta autoisolamendu prebentiboak, COVID 19aren infekzioarekin bateraga-

ria den edozein sintoma izanez gero. Sintomarik izanez gero, osasun-zerbitzuari jakinarazi behar zaio. Une horretatik aurrera, eta testa egin arte itxaron gabe, jarraierarik arduratsuen eta gizalegezkoena berehalako autoisolamendua da, eta azken bi egunetan izan ditugun kontaktu estuen zerrenda egitea (autorastrea), hala badagokio, mediku-zerbitzuetatik edo miaketaz-zerbitzuetatik jasotzen diren

oharrak jarraitzeko. Zorroztasun-jarrera bera izan behar da testaren emaitza iritsi bitartean eta emaitza jaso ondoren.

Bilerak

HIRU Familiako edo lagun bilerak edo ospakizunak ahalik eta gehien murriztea gomendatzen da. Kasu honetan, kontua ez da bildu daitezkeen pertsonen kopuruaren muga errespetatzea. Autolimitazio arduratsuen printzipioa aplikatu behar da. Topaketa horiek atzeratzea edo ez egitea da kontua, egoera epidemiologikoa arrisku handikoa den bitartean.

Ostalaritza

LAU Ostalaritzako espazioak erabiltzea futbol-partidak edo beste edozein kirol-ekitaldi edo bestelako ekitaldi taldean ikusteko, birusa transmititzeko arrisku handiko testuinguru objektiboa da.

BOST Berriro azpimarratu behar da maskara behar bezala jarrita egon behar dela uneoro taberna, jatetxe edo ostalaritza-establezimendu batean gaudenean. Edaria edo janaria hartzen denean baino ezin da erretiratu. Testuinguru horietan maskara erabiltzean sortzen den erlaxazioa infekzioarako arrisku-foku objektibo eta aproposa da.

Kirola

SEI Kirol-instalazio itxiak arrisku-guneak dira. Prebentzio-neurriak zorroztea gomendatzen da. Bereziki, gimnasioetan eta kiroldegietan aldagelak ez erabiltzea gomendatzen da. Ez da gomendagarria publiko gisa ingurune itxietako lehiaketetara joatea. Gogorazi eta azpimarratu da kiroldegi, gimnasio

eta aldageletako kirola maskarekin egin behar dela, eta gehienez ere sei pertsonako taldeetan antolatu behar dela, ezarritako gutxieneko distantziarekin.

Beste eremu batzuk

ZAZPI Espazio itxiak etengabe aireztatzea, airea berrituz, prebentzio-neurri eraginkorra da. Edonola ere, hori betetzea gomendatzen dugu, eta, bereziki, sotoetan edo erdisotoetan kokatutako lokaletan edo aireztapen txarra dutenetan. Testuinguru horietan, airea berritzeko aireztapena areagotzeaz gain, distantzia, garbitasuna, gehieneko edukiera eta maskara erabiltzeko prebentzio-neurriak zorroztu eta protokolatzea behar dira.

ZORTZI Arriskuko eremua dira unibertsitateetako ohiko elkar-guneak (korridoreak, atondoak) eta tabernak. Gune horietako egonaldia eta joan-etorria arautzeko protokoloak zorroztea eskatzen da, eta erabiltzaileei gomendatzen zaie prebentzio-neurriak bereziki zaintzea: distantzia, maskara erabiltzea, garbitasuna eta harreman gutxi eta ez oso jarraitua taldeetan.

BEDERATZI Garraio publikoaren erabilerrari dagokionez, pilaketak saihestea gomendatzen da, batez ere puntako orduetan. Horretarako, oso komenigarria da garraio-maiztasuna eta unitatekopurua handitzea ordutegitarte horietan.

HAMAR Halaber, gomendatzen da hori posible den enpresetan tel-elana eta ordutegi irristakorrek sustatzea (malgutasuna sarrerareta irteera-orduetan).

Arduraz jokatzeko deia sintomak agertzen direnean

Ignacio Garitano Osasun sailaren eta Osakidetza zaintza eta kontrolerako programaren koordinatzaileak arduraz jokatzeko deia egin zuen: "Norbaitek sintomarik badu, lehenbailehen jarri behar du harremanetan osasun zentroarekin. Une horretatik aurrera eta testa egin arte itxaron gabe jarrera arduratsuen autoisolamendua da".



Ignacio Garitano. IREKIA

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

EGUZKI ANDOAIN

Covid-19aren aurkako murrizketak ehizari, gainerako jarduerari bezalaxe

Ehiza federazioek, berriz, ehiza “funtsezko jarduerari” deklaratzeko eskatu dute, ehiztariak hiru herrialdeetan trabarik gabe ibili ahal izateko. Eguzkik Eusko Jaurlaritzari eskatu dio Covidaren aurkako dekretuan aurreikusi dituen murrizketak ehizari ere ezartzeko, gainerako jarduerari bezalaxe, eta, ondorioz, ehiztariak ez emateko eskatzen ari diren mesede-traturik.

Izan ere, Arabako eta Bizkaiko Ehiza Federazioek (ez dakigu Gipuzkoakoak ere gauza bera egin ote duen) ehiza “funtsezko jarduerari” deklaratzeko eskatu dute, ehiztariak hiru herrialdeetan trabarik gabe ibili ahal izateko. Hori lortzeko, Jaurlaritzaren aurrean bien ordezkari den Euskal Federazioa lanean ari omen

da. Eta Arabako Foru Aldundiak, berriz, egun gutxi barru “dekretuaren interpretazioa argituko” dela ziurtatu die. Hori irakur daiteke, behintzat, aipatu bi federazioen webgune ofizialetan.

Ehiza pasio bat da eta normala ere bada pasio horrek ehiztariak itsutzea. Baina administrazioek ezin dute itsuak balira bezala jokatu. Ehiztarien eskaera itsuei ezetz esan behar diete, argi eta garbi. Egiten ez badute uste dutelako, guk bezala, ehiza “funtsezko jarduerari” deklaratzeko zentzugabea dela, egin dezatela behintzat ehiztarietako mesede-tratua gainerako herrietarrekiko guztiz diskriminatzailea izango litzatekeelako. Izan ere, hemen denok ditugu



Ehiztaria. GOIENA

pasio edo zaletasunak –askoz premia larriagoak ahaztu gabe, noski– eta horiek denak, Covidaren aurkako neurriak direla eta, murriztuta geratu dira. Gainerako pasio edo zaletasunekin ere salbuespenak egiten hasiko ote da Jaurlaritzak.

Gaizki ulertuak eta biktimismoak saihesteko, argitu dezagun Lehendakariaren 36/2020 Dekretuak ez duela ehiza debekatzen, alderantziz baizik. Izan ere, berariaz baimentzen du (zehatz-mehatz, eranskinetako 22. puntuan). Hori bai, ehiztariak ere 2. artikulua erabiltzeko jartzen ditu, hau da, ehiza beraie herrian bertan egin behar dute edo, gehienez ere, aldamenekoan, egoeraren arabera. Hau da, Dekretuaren 2. artikulua ehiztariak jartzen ditu perretxikozale, mendizale, txirrindulari... edo antzerkizale edo zinemazaleen parean. Gainerako guztien parean, alegia, ez gehiago, ez gutxiago. Dekretuak, ordea, ez du esaten ehiztariak hiru herrialdeetan trabarik gabe ibili ahal izango dutela

beraien jarduerari “funtsezkoa” delako usoak edo oilagorrek botatzeko, ezta basurdeak botatzeko ere. Dekretuak ez du horretaz ezer esaten. Beraz, ez dakigu nolako “interpretazioak” egin daitezkeen. Gauzak nola dauden ikusita, logikoa ere bada bakoitzak bereziki erreparatzea murrizketek bere sektoreari eta, are gehiago, bere buruari nola eragiten dieten. Baina denak eta edozerk ere ez du balio... batez ere pandemia sektore guzti-guztietan gogotik jotzen ari dela kontuan izanda.

"EHIZA PASIO BAT DA BAINA ERAKUNDEEK EZIN DUTE ITSUAK BALIRA BEZALA JOKATU"



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz eteko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Umietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketatzailea: Maddi Trubxuelo.
Kudeaketa, harpidetza: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaileak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocio Arias (Umietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.



Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.





Andoain eta Urnietako mugan dago Aranaztegi etorbidea. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Lan munduan koronabirusak eragin duen kaltea oso handia izaten ari da, eta datuak ageriko sentsazio hori indartzera datoz. Langabeziak gora egin du eta ERTEan murgildutako langileen kopurua oso deigarria da. Ia zortzi mila lagun daude edo egon dira aldi baterako erregulazio espedientean.

Eskualdeak gabezia batzuk baditu, eta nagusiki bi dira: Lehena, enpresen tamaina oso txikia dela. Bataz beste, 10 langile azpikoak dira enpresa gehienak. Eta, bigarrena, etorkizunari aurrea hartzeko duten zailtasuna. Digitalizaziorik ez da apenas eman. Eta bi aldagai horiez gain, eskualdeko enpresetan ez dago berezko produktu propiorik eta kanpoko enpresa handien baitan daude. Horrek dependentzia egoera handia eragiten die.

Udaberrian pandemia hasi zenetik, eskualdeko ekonomiak jaso duen kolpea handia izan da. Eta horrek eragin zuzena izan du langilegoarengan.

Langabezia

Azken bost urteetako daturik txarrena eskaintzen du, eta iazko datuekin alderatuta 809 afiliatu gutxiago daude Gizarte Segurantzaren alta emanda. Urte batetik bestera langabezia 2,23 puntu igo da. Une honetan eskualdean langabezia %10,2an aurkitzen da. Datuak aletzen hasita, zerbitzuetan 525 langabetu gehiago dago, eta industrian 104 gehiago.

ERTEak

Aldi baterako erregulazio espedientean murgildu diren langileen kopurua ikusita, oso ondo-

Milaka langileren egoera gaiztatu da pandemiaren ondorioz

Lan munduan koronabirusak eragin duen kaltea oso handia izaten ari da, eta datuak ageriko sentsazio hori indartzera datoz. Langabezia igo egin da eta ERTE egoeran murgildutako langileen kopurua deigarria da. 7.985 dira, denera, eskualdean

rio kezkarriak atera daitezke. Kopurua oso handia da, ia 8.000 lagun egon dira egoera horretan. Enpresa txikiak izanik, menpeko industria izanik eta zerbitzuetan ostalaritzak eta merkataritzak pisu handia izanik, hobeto ulertzen da datu handi hori. Izan ere, pandemia ondoen saihestu duten sektoreak energiarekin, informazioaren eta komunikazioaren teknologikoekin, telekomunikazioekin edo informatikarekin loturikoak dira. Eta horien pisua gure eskualdeko ekonomian oso oso apala da. Ekonomia gurean enpresa txikiak eta gertuko zerbitzua eskaintzen duten ekimenak dira. Pandemiaren gehien sufritzen duten sektoreak, alegia.

ERTE-en bilakaera hori oso tentuz jarraitu beharrekoa da, behin behineko neurriak direlako. Estatu mailan hartutako

Langabezia

	Iraila'19	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila
Langabetuak guztira	2.902	2.941	2.924	3.254	3.591	3.669	3.790	3.790	3.870	3.711
Langabezia %	7,97	8,08	8,04	8,94	9,87	10,08	10,42	10,42	10,64	10,2

Langabezia, sektoreka

	2019	2020									Aldea
	Iraila	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	
Nekazaritza	59	72	69	69	74	70	79	82	77	69	(+)10
Industria	411	395	399	441	480	492	514	528	526	515	(+)104
Eraikuntza	175	181	187	192	214	212	223	237	239	229	(+)54
Zerbitzuak	1.979	2.030	2.020	2.296	2.551	2.603	2.625	2.588	2.653	2.504	(+)525

neurria da, gizartea babesteko hartu dena, eta pandemia egoera luzatzen eta zailtzen bada ikusi beharko da estatuak zenbaterainoko aukera izango duen ERTE kopuru handi horri eusteko. Txarrenean jarrita, ekonomia geldialdian sartuz gero, ERTE egoeran dauden langile asko langabeziara joan daitezke. Hori gertatuko baliz, aurrikuspen batzuren arabera, langabeziataxa 3 edo 4 puntu igoko litzateke. Hazkunde horrek larritasun egoera handitu besterik ez du egingo. Zer gerta ere, etorkizunak bide eraldatzailea marraztu behar du. Kontua ez baita lehengora itzultzea. Eskualdeko enpresen sarea ikusita, enpresa horiek guztiak etorkizunera begira jarri behar dira. Berraktibazio planetan aditu direnek lehentasunak ezarri dituzte: Merkaturatzeko egokitzapen planak, berrikuntza eta digitalizaziorako erramintak, iraunkortasunerako inbertsio neurriak, trantsizio energetikoa ahalbidetzeko laguntzak...

Zerbitzuak eta industria eskualdean nagusi dira

Andoain eta Urnieta Beterri-Buruntza eskualdean kokatzen dira, eta Gipuzkoako eskualde gehienetan bezalaxe, zerbitzuak eta industria atalek dute pisu gehien. Zerbitzuetan, egoera zailean dira ostalariak eta merkatariak. Ostalarientzat kolpe handia izan da mugikortasunari lotutako murrizketak ezartzea. Eskualdean ostalaritzako 1.332 lagun egon ziren ERTEan. Merkatarien kasuan egoera ez da asko aldatzen, baina badira zehaztu beharreko ñabardurak. Izan ere oinarritzko elikagaiei loturiko merkatalguneentzat egoera ez da hain larria izan. Oso larria izan da, aldiz, pandemia garaian funtsezkotzat hartu ez ziren gainerako merkatarientzat. Martxotik hona 1.124 pertsona izan dira ERTE egoeran.

Industrian arreta ipiniz gero, jarduera nagusia metalurgiari, metalari eta plastikozko produktugintzari lotuta dago. Pandemiaren hasierak eragin handia izan zuen industriaren gehien-goan, eta udaberrian %32ko jaitsiera izan zuten ekoizpenean. Jaitsiera horrek eragin zuzena izan zuen langileengan. 1.832 lagun aldi baterako erregulazio egoeran murgildu ziren, ERTE modura ezagutzen den egoeran.

Sektoreak, oro har, egiturazko gabeziak ditu. Tamainaz txikiak dira –bataz beste, 10 langile azpikoa–, kanpo esportazioen menpe daude eta enpresa handiagoen hornitzaile nagusi dira.

Ezberdin egiten dituen aldagaiak

Eskualdeak baditu gainerako eskualdeekin alderatuta ezberdin egiten dituen aldagaiak. Sagar-dogintza, esaterako. Ostalaritzan eta turismoan eragina du, eta pandemian egoera aldarazteko saiakera itzela egin dute.

ESKUALDEKO INDUSTRIA TAMAINAZ TXIKIA DA ETA KANPO ESORTAZIOEN MENPE DAGO

Bada beste bereizgarria eskualdean, hori kultur eta sormen industriari lotuta. Kultura eta aisialdiari lotutako enpresa asko dago, gehien-gehienak Martin Ugalde Kultur Parkearen inguru-

ZERBITZUETAN AGERIKOA DA PANDEMIAK OSTALARITZAN IZAN DUEN ERAGINA

ruan bilduta. Bereizgarri hori interesgarria izan daiteke egoera orekatu batean. Zoritzarrez, kultur industria oso lotuta dago jendaurreko ekitaldietara. Eta hori, bistan da, ia ezinezkoa da

ERTE-AK DELAKOAK AMAITUZ GERO, ESKUALDEAN LANGABEZIA 3 EDO 4 PUNTU IGO DAITEKE

egitea. Enpresa txikiak dira, horietako asko autonomoak, eta sektore horrek nozitu du gehien pandemia garaia. Bataz beste, sektorean %50 eta %75 artean jaitsi da fakturazioa.

ERTEak | Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak udalerrrika

	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Guztira
Andoain	693	374	8	196	67		40	1.378
Astigarraga	624	261	8	114	2	4	68	1.081
Hernani	1.685	373	41	100	3		859	3.061
Lasarte-Oria	763	179	82	1	77		3	1.105
Urnieta	209	296	53	1	73	38		670
Usurbil	326	262	75	9	18			690
GUZTIRA	4.300	1.745	267	421	240	42	970	7.985

ERTEak | Aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak sektoreka

	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Guztira
Nekazaritza	2	0	0	0	0	0	0	2
Industria								1.898
Manufaktura-industria	884	471	145	154	136	42	0	1.832
Energia elektriko, gas, lurrun eta aire girotu hornidura	3	0	0	3	0	0	0	6
Ur-hornidura, Saneamendu-jarduerak, Hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	31	0	0	29	0	0	0	60
Eraikuntza	98	77	0	0	0	0	0	175
Zerbitzuak								5.910
Merkataritza	613	367	85	52	0	0	7	1.124
Garraioa eta biltegiatzea	325	237	0	0	1	0	0	563
Ostalaritza	1023	296	3	10	0	0	0	1.332
Kultur eta sormen industriak	235	125	53	0	0	0	0	413
Administrazio-jarduerak	245	125	68	3	0	0	0	441
Hezkuntza	53	20	3	0	3	0	0	79
Osasuna eta Gizarte Zerbitzuetakoak	984	2	0	0	0	0	851	1.837
Finantza- eta aseguru-jarduerak	3	0	0	0	0	0	0	3
Higiezin jarduerak	10	0	0	0	0	0	0	10
Bestelako zerbitzuak	101	7	0	0	0	0	0	108
GUZTIRA								7.985

Euskaraldiaren aurkezpena Basteron

Azaroaren 19ra arteko epea dago ahobizi edo belarriprest rola aukeratu eta ariketa sozialean izena emateko. 15 egunetan euskara "Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan" erabiltzeko deia egin dute ekimenaren antolatzaileek

Erredakzioa ANDOAIN

Egoera erraza izan ez arren, 421 udalerritan ari dira herri batzordeak antolaketa lanetan. Euskaraldiaren sustatzaileek sare horretan parte hartzen ari diren milaka lagunen lana eskertu nahi izan dute.

Era berean, 6.737 entitatetan sortu diren 25.000tik gora ariguneen ahalegina ere azpimarratu nahi izan dute. Euskaraldian parte hartzeko izena eman duten entitate guzti hauek beraien barne zein kanpo funtzionamenduan euskaraz aritzeko sortu, identifikatu eta babesteko apustua egin dute eta horrek oinarri garrantzitsua emango die azaroaren 20tik abenduaren 4ra Euskaraldian parte hartuko duten milaka ahobizi eta belarriprestei.

Euskaraldia testuinguru berezian datorrela adierazi dute, COVID-19ak eragindako egoerak baldintzatuta. Hala ere, Euskaraldiaren helburua parte hartzaileen hizkuntza ohituretan eragitea eta bakoitzaren harreman sareetan euskara gehiago erabiltzea dela kontuan hartuta, antolatzaileek ariketan parte hartzeri animatu nahi izan dituzte euskara ulertzeko eta euskaraz aritzeko gai diren herritarrek. Bakoitzak bere inguruko harreman sareetan (etxean, lanean, komertziotan, lagunartean edo Internet bidezko harremanetan) hizkuntza praktikak aztertu eta euskara gehiago erabiltzeko aukera baliatu eta ariketan parte hartzeko deia egin dute sustatzaileek.



Lehen Euskaraldiko hamaikakoaren aurkezpena Urnietako Xoxoka-Goiburun. AIURRI

Irailaren 24an zabaldu zen Euskaraldian ahobizi edo belarriprest modura izena emateko epea eta dagoeneko Euskal Herriko lurralde guztietako ia 70.000 herritarrek eman dute izena. Izena eman dutenen artean %20 ak lehen edizioan ez zuen parte hartu.

Izena emateko bideak

- Euskaraldia.eus webgunearen bidez.
- Eskuko telefonoetarako, Android zein IOS sistemadun gailuetarako sortu den aplikazioaren bidez.

Hiru dei euskal gizarteari:

- Euskaraldiaren lehen edizioan parte hartu zuten belarriprest eta ahobiziei: Bigarren edizioan ere izena ematea garrantzitsua da, antolaketaarako garrantzitsua

delako eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketak egin eta errepikatzea beharrezkoa delako.

- Ariguneetan parte hartzen duten kide guztiei: Beraien entitateek izena eman duten arren, ariguneetako partaideek ahobizi edo belarriprest modura izena eman beharra dutela gogoratu da.
- Aurreko edizioan parte hartzerik izan ez zutenei: Arrazoi ezberdinengatik aurreko edizioan parte hartu ez zutenei rola aukeratu, izena eman eta ariketa egiteko gonbitea luzatu diete antolatzaileek. Ariketa egiteak merezi du, inguruan euskaraz aritzeko uste baino aukera gehiago dagoela eta, arituz, hizkuntza ohiturak aldatzea posible dela ikusiko dutelako.

Urnietan Euskaraldian murgildu da

Urnietan Euskaraldiaren bigarren edizioan murgildu da. Hasteko eta behin, herrian izena emateko aukera ahalbidetuko dutela iragarri dute. Aurrez aurre egiteko aukera eskainiko da Lekaio kultur etxean. Online izena eman dutenek ere Lekaion txapa jasotzeko aukera izango dute:

- Azaroak 9, 10, 11, 12 eta 13: 16:00-19:30.
- Azaroak 14: 11:00-13:30 / 17:00-19:30.
- Azaroak 16, 17, 18, 19: 16:00-19:30.

Hartu lagunen eta familiako kideen txapak

"Covid 19-ak baldintzatuta bizi dugun egoera dela eta, ilarak eta jende pilaketak saiheste aldera, norberak bere txapa hartzeaz gain, bere familiako kideen edo lagunek txapak hartzeko aukera izango du,

baldin eta pertsona horien izen abizenen zerrenda eramaten badu eta denak Urnietan izena emanda badaude", adierazi dute udaletxetik.

Euskaraldiaren banderatxoak

Bestalde, edizio honetan, herritarrek etxeetako leiho eta balkoietan banderatxoak jartzeko aukera izango dute, Euskaraldiarekiko atxekimendua adieraziz horrela. Banderatxo horiek Lekaio kultur etxean erosi ahal izango dira 5 eurotan, aurretik aipaturiko egun eta orduetan.

Zalantzak

Edozein zalantza izanez gero Euskaraldiaren Urnietako dinamizatzailearekin harremanetan jartzeko aukera dago.

- euskaraldia.urnieta@gmail.com.
- 688 826 530.

Euskaraldiko zapia salgai



Aiurriren ataria, Andoingo Arantzibia plazan. AIURRI

Dagoeneko salgai daude Aiurrin. Bulegoa Arantzibia plazan dago, 4-5 zenbakien artean. Goizero zabalik dago egoitza, eta arratsalde batzuetan ere.

Prebentzio neurri modura bulegoko atean saltzea lehenetsi da. Eta ahal dela 5 euroak eramane txanponetan edo billetean. Prezio justua, alegia.

Eman izena Euskaraldian!

izenematea.euskaraldia.eus



**EUSKARALDIA****GEHIAGO,
GEHIAGOREKIN,
GEHIAGOTAN.**

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

AHOBIZI edo
BELARRIPREST?

Euskara ulertzen dudanez eta nire hizkuntza-ohiturak eraldatu nahi ditudanez, Euskaraldian parte hartu nahi dut. Baina zein rol aukeratuko dut?

Euskaraldiak irauten duen 15 egunetan ulertzen duten guztiekin euskaraz egiteko prest al nago?

**BAI,
BETI**

- Lehen hitza euskaraz egingo dut.
- Elkarrizketa elebidunetan euskarari eutsiko diot.

NI**BAI,
NAHI ETA AHAL
DUDANETAN**

- Dakitenei niri euskaraz hitz egiteko eskatuko diet uneoro.
- Egoeraren arabera erabakiko dut euskaraz noiz egin.

NIwww.euskaraldia.eus

Xabier Lasa URNIETA

Lan munduan mekanikoa izan zinen iraganean.

Andoaingo ikastolan OHO ikasi eta gero, Juanjo Ponce adiskidea eta biok La Salle ikastetxera abiatu ginen ofizioaren bat ikastera. Aitak esana zidan, "*Juankar, bizitza honetan zerbait izan nahi badek, profesioaren bat ikasi beharko dek aurretik*". La Salleko bulegoetan, ikasketetan zer moduzko nota atera genituen galdetu zigun fraide batek. Nire adiskideak emaitza onak zituen, eta elektronikara bideratu zuten. Nik ere bide beretik joan nahi adiskidearekin batera, baina, eskas eta oso eskas ugari pila-tuta eduki! Bada, mekanikoaren arlora bidali ninduten. Bide horixe hartu behar izanik, bost urteko ikasketak aisa samar gainditu, eta lan munduan murgildu nintzen.

Mekanika sektorean urtetan barrena, zortzi lantokietatik igaroa naiz, eta guztietan denetarikoa ezagutu ditut, tamainaz eta funtzionamenduz: tailer txikiak, ertainak, handiak... Mundu guztiaren antzera, bizi dinamika bertsuan bizi izan nintzen horietan: 65 urterekin erretiroa hartzeko ametsa eduki, eta bizitzaz gozatzen hasteko... Lantoki denetan, ordea, iristen zen une bat non nire askatasun pertsonala mugatuta ikusten nuela zeharo; atzera botatzen ninduen zenbait lankideen goranahiak, estresa sumatzen nuen... Kartzela moduko giroa sentitu, eta beste lantegira pasatzea erabakitzen nuen halako batean. 2015. urtea, ordea, mugarri suertatu zen niretzat; kontzientzia hartu nuen orduan, eta geroztik bizitza aldatu didan erabaki latza hartu nuen.

Zer gertatu zitzaizun orduan, mugarri suertatzeko zuretzat?

Sektore eolikoan bikain dabilen Zumaia lantegi batean nebilan lanean orduan, 48 urte nituela. Zerbait arraroa sentitzen nuen nire barruan, estresarekin bizi nintzen... Behin, lantokitik etxerako itzuleran, A8ko errebuelta batean, lo-antzean geratu nintzen derrepente, eta bide bazterrean amaitu nuen. Eskapada besterik ez zen izan. Baina hurrengo astean, ordu eta leku berean, trantze berbera! "*Geldi! Seinale bat dek, Juankar!*" agindu nion nire buruari. Enpresarekin hitz egin, eta barruko ahotsari entzuteko denbora hartzea eraba-

"Gorputzean adierazten zaizkigu min eta gabeziak"

JUANKAR ERASUN KINESIOLOGIA EMOZIONAL PRAKTIKOAN TERAPEUTA

Makinen mekanikoa izan zen 2015a arte, baina bere desioen kontzientzia hartu eta bere bizitza iraultzea erabaki zuen. "Gizakien mekanikoa" izatera heldu dela dio



Kinesiologia emozional praktikoan terapeuta bezala jarduten du, Donostiako Egia auzoan dagoen Amalthea psikologia zentroan. AIURRI

ki nuen. Argi neukan, etorkizunean, nire sormenetik irtenda-ko zerbait egin beharra naukaila.

Nola edo halako "konfinamendu" pertsonal batean murgildu nintzen. Prozesu pertsonal hartan zehar, maiz ama-naturarekin harremanetan jartzea izaten nuen gogoko, eta behin, Buruntzako tontorrean negoela argia piztu zitzaidan: ondorioztatu nuen ordu arte neure buruari egindako galderak ez zirela zuzenak, alderantziz egin behar zirela, alegia. *Zer nahi det eduki, eta horretarako zer egin behar det?* Galdera horixe tradizionala zen, betikoa. Aitzitik, egin beharrekoak, honakoak zirela: *Nor zara? Zergatik etorri zara hona? Zer egin nahi duzu zaren horrekin?* Eta erantzuna agudo heldu zitzaidan, alegia besteengan zerbitzu bat eskaini nahi nuela, ekinbide horretan gogoko izango nuena eta pertsonalki garatzen lagunduko zidana, eta, bizimodua ateratzeko balioko zidana.

Garaitsu hartan, Urnietan, batekin eta besteekin hizketan, nutrizioan sakontzeko bideak ireki zizkidaten. Artean sendabelarretan eta perretxikoen munduan sakontzen ibilia nintzen, baina hortik aurreragorik ez; bada, elikadura osasungarriaren arloan formakuntza jasotzen hasi nintzen. Aldi berean, kinesiologia zer zen aditzera eman zidaten, eta hortik ere jo nahi izan nuen interesa piztuta. Azkenean, formakuntza pertsonalerako ikastaro ezberdinak egin nituen, eta segitzen dut hortik, inoiz ez delako nahikoa ikasten. Egun, Txinako medikuntzan oinarritzen den Kinesiologia emozional praktikoan terapeuta bezala jarduten dut, Donostiako Egia auzoan dagoen Amalthea psikologia zentroan. Webgunea, amaltheapsicologia.com da.

Eboluzio prozesu batean murgilduta nabil, eta zoriotsu bizi naiz orain bost urte niregan piztu zen ametsa gauzatuz. Nire bizitza neuk bideratzen dudala iruditzen zait.

Metodo terapeutiko horren filosofia den zen laburbildu zenezake?

Amalurrarekin bizi gara beste elementuekin batera (animaliak, landareak, mineralak...) sistema horrek printzipio edo energia batzuk dauzka. Ingurunearekiko kontzientzia hartuz gero

eboluziona dezakegu pertsonalki, baina printzipio horien aurka egiten badugu, bada, jokaez horrek eragina izango du gugan. Zer egin, huraxe jasoko dugu.

Gizakiari normalki, gorputzean adierazten zaizkio min eta gabeziak. Hori ulertzen hasteko, jakin behar da gizakiok zazpi gorputz dauzkagula: estrukturala, fisikoa, azala, emozionala, kimikoa, mentala eta eterikoa. Harremanetan daude zazpiak, orekan mantentzen gaituzte eta energia mugiarazten dute. Horrela, paziente bat etortzen zaidanean min, arazo edo gaixotasunaren batekin, eta nik test muskularra egiten diet zazpi gorputz horiei. Dena delako min hori nondik datorkion aztertzen dut, bere bizimoduan zer harreman daukaten arlo desberdinek (mentalki, emozionala, energetikoki,...). Gorputzari galdetzen diot, eta berak erantzunak ematen dizkit.

Gerturatzen zaizkidan pertsonak beren arazoei buruzko kontzientzia maila bat hartuta daukate jada, eta saiatzen naiz zenbait erraminta eskura jartzen, kontzientzia horretan sakontzeko, ulertzen joan dadin zer egiten ari den bere bizitzarekin, era horretan bere bizitzaren eta osasunaren jabe egin dadin. Terapeuta bezala, orekarako eta armoniarako bidea irekitzen diot, eta lagundu egiten diot prozesuan. Nik ez dauzkat pazienteak, nik beren buruen “egileak” dauzkat. **Zer profileko pazienteak etortzen zaizkizu?**

Zabala da profila. Minbiziak antsietatea, bizkarreko oinazeak, ekzemak, arazo psikologikoak... gaitz horietakoak jotakoak, adibidez. Normalki, desoreka emozionalak dauzkaten pertsonak



Jatorri psikologoa duen bizipen bat lesio organikoan bilaka daiteke, Erasunen arabera.

izaten dira, bizipen emozional kaltegarriak bizi izan dituztenak eta fenomeno psikosomatikoa gertatu zaienak. Horrela, jatorri psikologikoa duen bizipen bat lesio organikoan bilakatu zaio. Artean, pertsona horiei piluletan oinarritutako medikuntza eman zaie irtenbide bezala, eta gure kontsultan gaixotasuna modu naturalago batean lantzeko aukera ematen diegu.

Zein da zure lan metodoa edo protokoloa, normalki?

Datorrenari entzun egin behar zaio lehenbizikoz. Maiz, pertsona horrek daukan ibilera edo gorputz-postura ikusita bakarrik berari buruzko informazioa lor daiteke, hizketan hasi aurretik ere.

Arazoren jatorria eta desoreka non dauden kokatzea da aurren-aurreneko helburua, eta horretarako galdetegia prestatuta daukagu. Subkontzientean lan egin behar izaten da, izan ere *kaxa beltza* bezala izaten baitugu hor barruan. Ondoren, testa etortzen da. Gorputzeko

organo bakoitza muskulu indikatzaile batekin erlazionatuta dago, eta testatu egiten dira muskulu horiek, jakinda fisikotik emozionalera dagoen konexio zuzena. Zentratu energetikoa egiten diot pertsonari, gorputz mentala lasai edo estresatua egin daiteke, eta era horretan baieztatzeko eta ezeztatzeko jokatzeko. Pazientea eta biok finkatzen goaz errealitatea, eta paziente bera gertatzen ari zaionaren inguruko kontzientzia hartzen doa. Horatik aurrera, planteamendua erraza da: *Zer egin dezaket hemendik aurrera, min hori ekiditeko?* Azken batean, ber-heziketa bat jasaten du pertsonak, ohiturak eta aldatzen joan dadin, “ohiturretako animaliak” baidira. Eta ni gidari lanak egiten dizkiot prozesu pertsonal horretan, akonpainamendua egiten diot, lehen esan bezala. Majikoa eta aberasgarria izaten da, aldatetarako berehalakoak bizitzaren hasten baitira.

Antzerkigintza utzita daukazu...

Utzita daukat, bai, baina gogoz helduko nioke iraganeko dinamika, Urnietan. Atzera begira jartzen naiz, eta ohartzen naiz, batetik, herriarentzat aberasgarria izan zela herrian sortu zen antzerkiaren inguruko sormen hori dena, gizarte kontzientzia sortzeko ahalegin emankorra suertatu zelako batik bat. Eta maila pertsonalean ere, uste dut antzerkigintzan egindako hamar urteak oso tresna baliagarria izan zirela niretzat, terapeutikoki eta emozionala hainbat arlo-mugak, gabeziak... lantzen lagundu zidatelako.



Aldundiak aurtengorako erabiliko duen kanpainaren irudia. ALDUNDIA

Harrera familiak erakartzeko kanpaina abiarazi du Aldundiak

Helburua babesgabetasun egoeran dauden haurrak ikusgarri egitea eta harrera-familia gehiago lortzea da

Erredakzioa ANDOAIN

'Ikusgaitzak' kanpainaren bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak 60 harrera-familia lortu nahi ditu, arrazoi ezberdinak direla medio euren gurasoei bizi ezin duten beste hainbeste haurrei laguntzeko. Egun, Gipuzkoan, 414 haur eta gazte bizi dira harrera-familietan; horietatik 338 adingabeak dira, eta beste 76k harreraren familietan bizitzen jarraitzen dute adin nagusikoak izanagatik ere.

Maite Peña Gizarte Politikako foru diputatuak kanpainaren lema zein den azaldu zuen: "Askotan ez dugu ezagutzen neska-mutiko horiek bizi duten egoera, eta, horregatik, ikusezinak dira gizartearentzat. Kanpainaren bitartez, ikusgarri egin nahi ditugu, eta, horri esker, beren etxeetan hartuko dituzten harreraren familiak bilatu".

Gizarte zabalarentzat ezezaguna bada ere, babesgabetasun egoeran dauden haur eta nerabeek zailtasun handiko errealitateak dituzte beren familietan. Batzuetan, arazo horiek hain dira larriak, ezinbestekoa dela adingabe horiek beren familietatik kanpoko ingurune batean zaintzea. Guztiek ez dituzte behar berberak, baina familia baten berotasuna behar dute, eta, aldi berean, familia biologikoarekin harremana izaten segi, haiek bizi ezin badute ere.

Foru diputatuak eskerrak eman dizkie lan bikaina eta beharrezkoa egiten duten harrera-familiei: "Familiek kontaktatu digute

egunerokoa maiz zailtzen dela eta erronka handiei egin behar izaten dietela aurre, baina aldi berean esperientzia ona eta oso positiboa dela". Horregatik aitoru nahi izan du familia horien lana, ardura eta elkartasuna, eta gogorarazi du edozein pertsona izan daitekeela harrera-familia. Interesatuta egon litezkeen familiak deitzera eta informazioa eskatzera animatu ditu, "hori baita egin beharreko lehen urratsa eta, askotan, zailena".

Kontakturako bideak

- E-posta: familiaharrera@gipuzkoa.eus
- Telefono zenbakia: 943 112 522

Egitasmoarekin bat egiten duten familia guztiek jasotzen dute beharrezko laguntza eta babesa: "Profesional talde bat daukate, hareraren jarraipena egiten duena, eta profesional horiek beharrezko erabakiak hartzen dituzte familiaren eta adingabearen ongizatea zaintzeko. Horrez gain, familiek laguntza ekonomiko bat jasotzen dute ohiko gastu guztiak estaltzeko, baita kasuan-kasuan aztertzen diren laguntza bereziak ere".

EGITASMOAREKIN BAT EGITEN DUTEN FAMILIEK LAGUNTZA ETA BABESA JASOTZEN DUTE



Urnietako
udala

Federatu mailako ligak bertan behera

FEDERATU MAILAKO KIROLA Egoera epidemiologikoak okerrera egin duela medio, Andoingo eta Urnietako kirol taldeak tartean diren lehiaketak eta kasu batzuetan entrenamenduak ere bertan behera utzi dituzte



Euskalduna taldeko jokalariai, aurreko denboraldian. AIURRI

Mikel Arberas ANDOAIN

Kirol elkarteek baikortasunez hasi zuten denboraldia. Askok abuztuan hasi zuten aurre-denboraldia, eta irailean jarraitu zuten entrenamenduekin. Zoriturrez, irailaz geroztik egoera epidemiologikoak okerrera egin du, beraz, kirol federazioek eta elkarteek neurriak hartu behar izan dituzte; hau da, txapelketak bertan behera geratu dira, ustez, egoera hobetu arte. Izan ere,

kirol gehienetan, oro har, kontaktua egon da eta beste herrietako taldeen aurka lehiatzea dute xede, salbuespenak salbuespen. Kontaktua eta herrien arteko mugimendua ekidin nahi izan dute.

Futbola

Iazko denboraldia erdizka utzi behar izan zuten pandemiak eragindako egoera zela medio. Aurten entrenamenduekin eta

txapelketarekin hasi eta segituan bertan behera geratu da guztia.

Duela bi aste Salva Parada Euskaldunako lehendakariarekin elkartu zen Aiurri eta baikortasunez hitz egin zuen: “Aurreko astera arte oso ondo ari ginen, kasurik gabe, baina orain egoerak okerrera egin du eta horrek ere Euskalduna taldean eragina eduki du. Hala ere, azpimarratu nahi dut, entrenatzaileak eta jokalariai gogotsu

entrenatzen eta arduratsu jokatzen ari direla”. Horrez gain, Paradak kirolaren garrantzia azaleratu nahi izan zuen: “Marxtoan guztia bertan behera geratu zenean eta etxean sartu ginen kirola behar beharrezkoa zela ohartu ginen, batez ere, haurrei eta gazteei begira. Nire ustez ariketa fisikoak onura gehiago ditu, sor ditzakeen arriskuak baino”.

Albert Fuentes Urnietako Futbol Elkarteko koordinatzaileak dioenez, protokoloa eta neurri zorrotzak hartu dituzte, izan ere, Urnietako egoera ez da batere ona eta futbola kontaktuzko kirol bat izanik, inguruko segurtasuna bermatzea ezinbestekoa dela nabarmendu du. Hala ere, talde gutxi ekin diote ligari, baina ezin izango dute partidekin jarraitu. Txapelketa ezerezean geratu daiteke, federazioaren erabakiaren zain.

Eskubaloia

Eskubaloia egoera ere futbolararen antzerakoa da. Kontaktuzko kirola da eta taldean jokatzen da. Ez da batere erraza pandemiak sortutako egoera kudeatzea, beraz, norgehiagokak bertan behera utzi dituzte. Eskualdeko taldeek ez dute aukerarik eduki partidak jokatzeke, nahiz eta, entrenamenduekin hasi ziren.

Andoingo Leizaran eskubaloia taldeak memento oro segurtasuna bermatu nahi izan du eta neurri zorrotzak hartu zituzten: “Entrenamenduen hasiera mailakatu egiten ari gara. Jubenilen eta seniorren taldeak irailaren 7an hasi ziren, kadeteak irailaren 21ean, eta infantilak urriaren 1ean. Berriz ere azpimarratu nahi dugu, lehenasuna jokalarien, familien eta haien

inguruko segurtasuna bermatzea dela”.

Esku pilota

Federatu mailako txapelketa guztiak bertan behera geratu dira. Hala eta guztiz ere, pilotari federatuek, infantilek, alebinek eta benjaminek entrenatu ahal izango dute, ez baita talde kirola, eta kontaktua murrizta baita. Federatuek euren herriko edo mugakideak diren herriko frontoietan entrenatzeko aukera edukiko dute, gehienez sei pertsonako taldeetan. Infantilek, alebinek eta benjaminek herrian soilik entrenatu ahal izango dute, hauek ere seiko taldeetan. Gehitu beharra dago, frontoian gaztetxoek bi talde entrenatu dezaketela aldi berean, baina distantzia mantenduta eta elkar nahastu gabe.

Bestela kirol jarduerak

Egoera zaila da eta kirol bakoitza ezberdina. Neurriak eta protokoloak ezartzerakoan kirol bakoitzaren berezitasunak kontuan hartu behar dira; izan ere, kirola taldekakoa, binakakoa, banakakoa, kontaktuzkoa edota distantziakoa izan daiteke. Neurriak ezin dira kirol guztiei modu berdinean ezarri. Gauzak horrela, guztiek ez dituzte protokolo berberak. Kasu batzuetan, tokiko elkarte edo federazioei informazioa eskatzea izan da hoberena, gaizki ulertuak ekiditeko.

Ez-ohiko egoera honetan ezjakintasuna handia da. Erabaki asko hartzeke daude, beraz, ez da erraza jakitea epe ertainean eta luzean kirolaren gainean zein neurri ezarriko diren. Kirol federazioetan eta elkarteetan egonkortu egin da ziurgabetasun egoera.

HERRIEN ARTEKO MUGIKORTASUNA GERATZEAN, ATEAK IXTEN ZAIZKIO KIROL LEHIARI

KIROL FEDERAZIOETAN ETA ELKARTEETAN EGONKORTU EGIN DA ZIURGABETASUN EGOERA



VUELTAREN AMAIERA
AIURRI.EUS | @aiurri

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA





Julen Gabirondo. AIURRI



Xabier Zaldua. UZTARRIA

Apusturik ez, oraingoz

HERRI KIROLAK Aizkora eta sega uztartuz bi orduko desafioa egiteko gogoia agertu zuten bi kirolariak, baina aizkorari lotutako lanaren inguruko baldintzetan ez zuten lortu ados jartzea

Xabier Lasa URNIETA

Hutsean geratu da Julen Gabirondo eta Xabier Zalduaren arteko apustua. Aizkoran eta segan bi orduko desafioa luzatua zion urnietarrak zumarragarriari, baina nork bereari eutsi zion Azpeitian urriaren 23an elkartu zirenean. Beraz, herri kirol zailek oraingoz ezingo dute gozatu aparteko ikusmina piztu zuten desafioarekin.

Zalduak eta Gabirondok emozioz beteriko ikuskizun ederra eskaini zuten Azpeitian irailaren 21ean, Euskal Pentatloian. Geroztik, herri kirolen munduan bazegoen halako ilusioa txapelduna eta txapeldun-ordea indarrak neur zitzaten.

Julen Gabirondo izan zen lehendabizikoa pausoa ematen, Zalduak komunikabideren batean adierazi zuenean gogoz ekingo liokeela apusturen bati; aizkora eta sega uztartuz nahiko lukeela erantsi zuen. Gabirondo halako abenturatan sartzeko irrikatan dabil, eta era horretan, erronka bota zion zumarragarriari, izendatutako tokian eta egunean bildu, eta udaberri aldera zerbait antolatu asmoz.

Urriaren 23an Mendizabal jatatxean elkartu ziren biak. Baina nork bereari eutsi zion, ez zuten amore eman nahi izan, eta ezer adostu gabe hartu zuten etxerako bidea.

Gabirondoren lehen proposamena, 15 kanaerdiko lana lehenbizi eta gero segan bi ordu bete arte izan zen. Zalduaren kontraproposamena, berriz, 20 kanaerdiko egurrak izatea, eta erdi bana eramanda. 20 kanaerdiko baietz, baina berak eramanda, Gabirondoren erantzuna izan zen. Zalduak, osteratzen, ezetz, egurra erdibana behar zuela izan derrigor. Biek beren posturekin ez zuten amore eman, eta horretan amaitu zen bilera, ordu erdiko eztabaidaren ostean.

Nork bere arrazoiak

Nork bere posturari eutsi zion Euskadi Irratiko *Hiru Erregeen*

"BERE EGURRAREKIN EZINGO NUKE SEGAN GALDUTAKO DENBORA BERRESKURATU"

GABIRONDO

Mahaia irratsaioan, biharamu-nean. Gabirondok adierazi zuenez, "berak 10 kanaerdiko gogor samarrak eramanez gero, niri lana 01:20 edo 01:30ra joango litzaidake, eta ondoren segan ez nuke denborarik izango galdutakoa berreskuratzeko; horrela ez daukat arriskatzetik".

Juan Manuel Erasunek eta Joxe Mari Olasagastik 1990ean eta 2005ean egin zituzten bi apustuak hartzen ditu erreferentziatzat urnietarrak. "Orduan Erasunek eraman zituen egurrak, eta hori zer edo zergatik izango zen; aizkoran, 55 minutuko lana joan zitzaion bi apustutan. Pentsa, Olasagastik 10 kanaerdiko gogor samarrak eraman izan balitu, beste 15-20 minutu gehiago joango litzazkioke Erasuni. Nik garbi daukat zein baldintzetan egin beharko genukeen apustua Zalduak eta biok, elka-

"UDABERRIA BITARTE EGURRAREKIN GARAPEN HANDIA IZAN DEZAKE JULENEK"

ZALDUA

rregandik bost minutuko gorabeheran ibiltzeko moduan".

Gabirondok gehitu zuen apustuetan ez daukala eskarmenturik, Zalduaren aldean.

Xabier Zalduak, bere aldetik, bestelako arrazoiak azaldu zituen: "20 kanaerdikoak berak jartzearen baldintza nik ezin dut onartu; ezin dut mahaitik altxa halako abantaila eskainita. Gabirondok aitzakia jarri du aizkoran bakarrik hiru kanaerdikoan aritu dela; baina erakutsi du zer maila daukan, eta udaberria bitarte garapen handia izan dezake, entrenatuz. Nik, ordea, segan ezingo nuke egin, martxoa arte belarrik ez dagoelako. Nik amore eman diot segan, lan horretan probatu gabea naizelako, eta nire eskarmentua egundaino ez delako ikusi".

Adostasunik gabe altxa ziren mahaitik

Arrazoiak arrazoi, Azpeitiako hitzordura egundoko ilusioarekin joan arren, bi kirolariak penatuta altxa ziren mahaitik. Hutsean geratu da, oraingoz behintzat, herri kirolean zaletu ugariren ikusmina eta morboa piztuak zeuzkan aukera.

Nolanahi ere, Gabirondok zein Zalduak sutsuki eusten diote apusturako grinari, eta beste inork tentatuz gero, ez da baztertu behar desafioren bat antolatzea udaberri aldera. Eta bietako batek zerbaitetan amore emanez gero, zergatik ez sinetsi biek ere azkenean adostu dezaketela apusturen bat?

SASKI BELTZA
betikoa

+ Korrikaren kartilua

55€

SASKI BERDEA
ekologikoa

+ Sasakaren egutegia

65€

SASKI ZURIA
berezia

+ D ereduaeren hasiak

75€

URRIAK 24 - AZARAK 12
errigora.eus

ERRIGORA

dek



Asviamieko kideak urriaren 15ean, Diez urnietarraren kasua epaitu zutenean. AIURRI

Amiantoari lotutako epaiketa berria Donostian

Modino andoaindarrak biriketako minbizia dauka, ustez bere lan jardunean irentsitako amiantoaren eraginez

Xabier Lasa ANDOAIN

Andoaindarrak biriketako minbizia dauka, ustez Pedro Orbegozo eta beste zenbait lantegietan irentsitako amiantoaren eraginez. Enpresa horiei segurtasun eta higiearen inguruko araudiak bete ez izana leporatzen die Patxi Modinok. Haren abokatuak Cofivacasa, Sidenor, Montajes Nervion, Arcelor Olaberria eta Jose Maria Ucin enpresen aurka helegitea aurkeztu du. Astelehenan abiatu zen epaiketa, eta aste batzuk igaroko dira epaileak epaia jakinarazi arte.

Amiantoak kaltetutakoek osatu duten Asviamie elkarteak adierazi zuenez, Euskal Herrian milaka dira minbizia sor dezakeen amianto mineralarekin gaixotu eta hil diren langileak. Ugaltzen ari dira gaiari lotutako epaiketak azken urtetan, hamarkada luzez hainbat lantegi zein administrazio oker aritu zirelakoan.

Felipe Diez urnietarraren kasua

Langileen aldeko epaiak irten dira epaiketa gehienetan. Urrutira gabe, urriaren 15ean Felipe Diez urnietarraren kasua aztertzeko epaiketa egin zen; Diez 2018an hil zen, Orbegozoko langilea izan ostean. Epaia zain dago familiak jarritako demanda.

Patxi Modinok, 1969-1992 epean Hernaniko Pedro Orbegozo lantegian lan egin zuen. Ondoren Acenor S.A.n aritu zen, mantenimenduko mekaniko ofizial gisa, eta amiantoarekin eta beste zenbait produktu toxikoekin kontaktuan jardun zuen.

Orbegozo eta beste zenbait lantegi Acenor S.A.ra batu zituzten 80ko hamarkadaren hasieran, industria-birmoldaketaren ostean. Hernaniko fabrika itxi egin zuten orduan, eta bere produkzio-jarduera Basaurira eta Gasteizera eraman zuten. Aurrerago, Sidenor S.L. enpresak hartu zuen ekoizpen-jardura hori, eta bere pasiboak Industria Ministerioaren eraginpeko Cofivacasa-ren esku geratu ziren.

1994an amianto zuen instalakuntza desagitea egokitu zitzaion. 1995-1998 epean Jose Maria Ucin enpresan galbahtzeko toberaren postuan aritu zen, zepa edo hondakinen be-zeizte lanetan.

Azkenik, Arcelor Olaberria enpresan jardun zuen, Donostiako Bicolan enpresako azpikontratatu gisa; 1998-2002 epean mekanikako mantenimenduko lanetan aritu zen.

Donostiako Onkologikoko Bular-kirurgiako zerbitzuak andoaindarraren kasua aztertu zuen; 2018ko urrian "Biriketako Kartzinoma ezkataduna" diagnostikatu zioten.

Gizarte Segurantzak Modinoren aldeko ebazpena eman zuen, eta ezintasun iraunkor absolutua aitortu zion. Osalanek ikerketa abian jarri zuen ondoren.

Honakoa ondorioztatu zuen: "egindako ikerketaren ondorioz lortu den informazioarekin, arrazoizko zantzuak daude amiantoaren menpe lan egin zuela adierazteko".

Azaroaren 25ari loturiko zikloaren aurkezpena

Alarma egoerak hankaz gora jartzen ez badu, Andoaingo Udalak indarkeria matxistaren aurkako sentsibilizazioan sakontzeko programazioa aurrera eraman nahi du. Hitzaldi, ikastaro eta kultur jarduek osatzen da aurtengo egitaraua

Erredakzioa ANDOAIN

Aurreko astean egin zuten aurkezpen ekitaldia, Goikoplazan. Petri Romero Emakume eta Gizonen Berdintasun saileko zinegotziak aurtengoa ez ohikoa izango dela aitortu zuen, beharrezko diren segurtasun neurriak hartuko dituztela azpimarratzearekin batera. Zailtasunak zailtasun, egun hori gogoan hartu eta indartu behar dela gaineratu zuen: "Emakumeenganako indarkeria matxista giza eskubideen aurkako adierazpen garrantzitsuenetarikoa bat da, eta honen aurkako jarrera adierazteko antolatzen da nazioarte mailan azaroaren 25ari lotutako eguna".

Maider Lainez alkateak gogora ekarri zuen Andoaingo Udalak erakundeen arteko jardura eta koordinazio-protokoloa onartu zuela 2019ko maiatzetan. Helburua argia da: Indarkeria matxistaren biktimei eta bizi-iraun dutenei arreta ematea. "Ildo horretan, udalak azaroaren 25aren inguruan antolatutako jardura guztiak babesten ditu, eta lanean jarraituko dugu indarkeria matxistarik gabeko Andoain bat lortzeko".

Herrian zabaldu duten egitarauaren arabera, azaroaren 12an izango da lehen ekitaldia.



Azaroaren 25ari loturiko zikloaren aurkezpen ekitaldia. AIURRI



Aurtengo irudia Maddi Trutxuelok landu du. AIURRI



AZAROAREN 1ETIK

ABENDUAREN 15ERA

aurreztu Andoain Txartelarekin

Andoaingo dendetan erosiz





Kultur jardueren etenaldia Urnietan

Hirugarren astez jarraian Urnietan aurreikusitako kultur jarduerak bertan behera utzi dituzte

Erredakzioa URNIETA

Agirresarobe ipuin kontalaria Lekaia etortzeko zen ostiral honetan. Baina osasun alarma egoera dela eta, hirugarren astez jarraian kultur ekitaldi guztiak eten egingo dituzte. Larunbatean goi mailako bertso saioa antolatu zuen Poxta Zaharrek. Miren Amuriza, Uxue Alberdi eta Nerea Ibarzabal abestekoak ziren, Irati Zinkunegi gai-jartzailearen esanetara. Atzeratu egingo da ekitaldi hori ere. Iganderako, berriz, familia ikuskizuna egitekoa zen. Bertan behera utzitako ziklo osoa aurrerago egiteko asmoa azaldu du Udalak.

HITZORDUAK

UDAN ZEHAZKIDIAK AIURRI.ESU GUNEAN ZABALDUKO DIRA. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTIRALA 6

ANDOAIN Erakusketa

Miren Barrena, Leire Lacunza Miranda eta Ibon Landa Amutxategiren erakusketa, "Paladin" izeneko. Abenduaren 5a arte zabalik egongo da. Erakusketaren irekiera aurrikusita dago, baina beti ere unean uneko osasun alarma egoeraren arabera bertan behera gera daiteke. **18:30 Bastero. Erakusketa gela.**

ANDOAIN Kontzertua

Liana Gourdija biolinjolea eta Jokin Okiñena pianojolearen kontzertua aurrikusita zegoen, udazkeneko kultur programazioa iragarri zenean. Emanaldia aurrikusita dago, baina beti ere unean uneko osasun alarma egoeraren arabera bertan behera gera daiteke.

Bastero. Auditorioa.



Askia Etxebarrieta eta Miren Amuriza. MUSIKAIRE

ANDOAIN Bertsoa eta flamenkoa "Gorria" ikuskizunean

Miren Amuriza bertsolariaren eta Askia Etxebarrieta La Pulga flamenko dantzariaren arteko elkarriketa artistikoa. Azaroaren 25eko egitarauaren barruan iragarritako ekitaldia da. Beti ere, osasun alarma egoeraren arabera ekitaldia aurrera joango da edo bertan behera geratuko da. **Azaroak 12, osteguna. 19:00. Bastero Kulturgunea.**

MERKATU TXIKIA

ESKOLAK

Hizkuntza eskolako irakasleak frantsese-ko klaseak ematen ditu: EOI diploma lortzeko, mintza-praktikarako, enpresetarako klaseak. **693 692 823 - 665 719 827**

9 urteko haurrak, ukelelea ikasteko eskolak hartuko lituzke, Andoain. **650 341 108**

SALGAI

Erretiroagatik, aluminiozko aroztegiko lokala eta makineria salgai edo alokagai. **651 70 73 43.**

Etxebizitza argitsua salgai lurako plazan, 3 logela, 2 komun eta

sukalde-egongela. Egoera onean eta igo-gailuarekin. Zatoz ikustera. **666 62 30 79**

Volkswagen Passat 1.6 Diesel 110cv 2014koa salgai, 172.000 km. Prezio ona. **659 848 574**

ALOKAGAI

2 logelako pisua alokairuan Andoainen, Goiburu auzoan. 600 euro. **600 374 510.**

MERKATU TXIKIAN PARTE HARTZEKO

diseinua@aiurri.eus
Whatsapez: **619 163 537**

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 7, igandea 8

Diaz: Kale Nagusia, 19. 943 592 057. Andoain.

URNIETA

Larunbata 7, igandea 8

Castilla-Larburu: Urbietan, 7. 943 552 941. Hernani.

BERTSO ANTZERKIA Urpekariak

azaroak 13, **OSTIRALA**, 18:00 Sutei **SARRERAREKIN** haur eta gaztetxoentzat (6-11 urte)

KONTZERTUA ETA FILMA Peru Galbete

azaroak 14, **LARUNBATA**, 20:00 Sutei **SARRERAREKIN**

FILM ETA SOLASALDIA Oskar Alegriaren Zumiriki

azaroak 15, **IGANDEA**, 18:00 Sutei **SARRERAREKIN**

KONTZERTUA Anari, Malen&Maddi

azaroak 20, **OSTIRALA**, 20:00 Sutei **SARRERAREKIN**

DANTZA Korrontzi Dantzan + ORBELDI dantza taldearekin

azaroak 21, **LARUNBATA**, bi saio 18:00 eta 20:00 Sutei **SARRERAREKIN**

ANTZERKIA Fadoak entzuten zituen gizona

azaroak 22, **IGANDEA**, 18:00 Sutei **SARRERAREKIN**

Sarrerak: Lizardi eta Noauan aldeaz aurretik. Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noauako egoitzan



NOAUA!KO KULTURALDIA 2020

USURBIL AZAROA



Azaroak 25

Azaroak 12, osteguna

GORRIA IKUSKIZUNA

Miren Amuriza bertsolariaren eta Askoa Etxeberrieta *La Pulga* flamenko dantzariaren arteko elkarrizketa artistikoa.

Bastero Kulturgunea, 19:00

Azaroak 17, asteartea

HITZALDIA

SAP (Síndrome de Alienación Parental)

Hizlariak: Plataforma Luna-ko ESTER RUIZ, Norma Vazquez.

Bastero Kulturgunea, 19:00

Azaroak 19, osteguna

ANTZERKIA "BIRRITAN BORTXATUA"

Nagore borbaxatu dute eta beldurrak gaindituz, salaketa jartzea erabakitzen du. Orduan hasten da Nagoreren bigarren amesgaiztoa.

Bastero Kulturgunea, 19:00

Azaroak 24, asteartea

DOKUMENTALA:

La historia de todas nosotras.

ELEBERRI GRAFIKOAREN

AURKEZPENA: Todas nosotras (Elizabeth Casillas + Higinia Garay).

DANTZA: Emakumeak, NODE (Myriam Perez Cazabon + Jone Amezaga).

Bastero Kulturgunea, 19:00

Azaroak 25, asteazkena

BIKTIMEI OMENALDIA

Goikoplaza, 19:00

Azaroak 27, ostirala

MAHAI-INGURUA: ETXEETAKO LANGILEEN EGOERA

Parte hartuko dute: Isabel Obioa, MAITELAN, EMAGIN.

Bastero Kulturgunea, 19:00

INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Azaroak 28, larunbata

AUTODEFENTSA FEMINISTA

Allurralde kiroldgia, 10:00-14:00 eta 16:00-20:00

www.andoain.eus / berdintasuna@andoain.eus



ANDOAINGO UDALA



Eman izena Euskaraldian!

izenematea.euskaraldia.eus

